

# Ezpalak


JON TORNER

## Fermin Muguruza

*Talka Tour* bira hasiko du apirilean, musikari kubatarrekin eta jamaikarrekin osatu duen Fermin Muguruza & Afro-Basque Fire Brigade taldearekin. Biraren lehen txanpan hiru kontzertu eskainiko ditu Euskal Herrian: apirilaren 20an Durangon, 21ean Donibane Garazin eta 30ean Iruñean.

## Jose Iriarte

*Bikila* hainbat bidaia egin ditu Saharara. Tindufeko errefuxiatu kanpamenduak ezagutu ditu eta, gainera, hango maratolian parte hartu du. Orain, maratonia aitzakia moduan hartuta, Saharan izandako bizipenak eta burutazioak *Riag Entinak (Elkartasuna basamortuan)* liburuan kontatu ditu idazle errenteriarrek.



## Thomas Pierre

ren *Représentations du monde basque et rapport à la culture en Iparralde au début de XXIème* proiektuak irabazi du Joxe Migel Barandiaran Fundazioak ematen duen ikerketa beka. Etnografia eta arkeologia alorreko lanak sustatzen dituen bekara hamaika lan aurkeztu dituzte aurretan.

## Mikel Begoña

eta Ricardo Sendrak Matxitxakoko gudari buruzko *Berunezko Itsasoa* komikia kaleratu dute. Lanaren euskarazko eta gaztelerazko bertsioak argitaratu dituzte horretarako propio sortutako Gure Erroak zigiluarekin.

## Ander Gillenea

bat *erbestean* argazki erakusketa paratu du Tolosako Aramburu jauregian. Aljeriako errefuxiatu kanpamenduetan hartutako irudiak biltzen dituen erakusketa apirilaren 14ra bitartean izango da ikusgai.



## La Fundición

Bilboko aretoak joera eszeniko berrien Max sari berezia jasoko du. Bilbon apirilaren 16an egingo den X. Max Sarien ekitaldian jasoko dute saria La Fundición aretoko ordezkariak.

## Alfonso Gortazar Bilboko margolariak egindako lanak bildu ditu Artium museoak



Alfonso Gortazar margolariak (Bilbo, 1955) Gasteizko Artium Arabako Arte Garaikideko Museoaan jarri ditu ikusgai bere obrak, *In albis* izeneko erakusketan. Hogeita hamar margolan inguru aurki daitezke bertan, gehienak Gortazarrek azken hamar urteotan egindakoak, baina bereziki erakusketa horretarako egindakoak ere badaude tartean. *Collage* sorta batek eta

mihise zuri batek osatzen dute bilduma. Hain justu, oihal zuriak du protagonismoa margolari bilbotarraren lanetan; oihal zuri horiek kolorez betetako paisaiarekin eta pertsonaiekin duten harremanak. Koloreek, irudiek eta eraikin ezegonkorrek presentzia handia dute artistaren lan guztietan. Artiumek berak ekoiztu duen erakusketa ekainaren 10a arte izango da ikusgai.

### Niko Etxartek *Aizu!* aldizkarian:

«Iparraldean abertzale ez den publikoak, guztiz frantsesa den publikoak, gozatzen du euskal kantua. Hau ez da ikusten Hegoaldean (...) Iparraldean, eskoletan eta gazteentzako, euskal musika –izan liteke tradizionala edo rocka– oso ongi ikusia dago; eta hemen, Hegoaldean, ez hainbeste (...) Han jendeak bere sarrera ordaintzen du kontzertu bat ikusteko. Aldiz, hemen, kasik dena, euskaraz den guztia diruz lagundua da, eta horrek ez du xarma berdina. Freudek erraten zuen psikoterapiaren lehen urratsa ordaintzea dela (...) Musikan berdina da. Musikan, edo edozein zaletasunetan, dena doan bada, ez duzu gozatzen».

### Juan Mari Juaristi bertsolari arabarrek *Gei Gasteiz* aldizkarian:

«Asko aurreratu da. Hala ere, lurraldez lurralde begiradaxo bat ematen baldin badugu, Araba da lurralde ahulena, bere egoera soziolinguistikoa eta ohitura faltagatik. Izan ere, asko aurreratu dugu, baina baita gaitortzeko lurraldeek ere. Bertan bertsolaritza osasuntsu eta indar-

tsu dago. Araban anekdotiko izatetik, izatera pasa da (...) Baina oraindik lan asko egin behar da, gure baldintzak zailak baitira».

Blanca Izkue musika-editoreak *Garan*: «Barricada Nafarroako Principe de Viana sarirako proposatuko dutela jakin dudanean, zera etorri zait gogora: Ingalaterrako erreginak bere garaian antzeko omenaldia egin zion The Beatles taldeari, eta beren lana saritzeko domina bana eman zien taldekideei. Taldea desegin ondoren, John Lennon, bakarkako emanaldi batean, bere dominaren gainean kaka egin zuen».

### Asier Hormaza aktoreak *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian:

«Piper eta txuletei labela jartzea ondo dago baina Euskal Herriko ikus-entzunezkoari labela ere jarri behar zaio, bada garaia. Badakit Oscar sarietara film labur batekin joatea oso *glamourosoa* dela, baina film luzeek ere laguntza behar dute. Badaukate, bai, baina gehiago behar dute. Hemengo jendea eta lanaren aldeko egiazko apustua egin behar du».

## Hilaren 20an hasiko da Donibane-Garaziko ZineuskaraZ jaialdia

**MARTXOAREN 20TIK** 23ra bitartean euskarazko hiru film eskainiko dituzte Donibane-Garaziko Le Vauban aretoan, ZineuskaraZ festibalaren barruan: *Nomadak TX* (20an 21:00etan eta 21ean 18:00etan), *Aupa Etxebeste!* (22an 20:30etan eta 23an 19:00etan) eta *Kutsidazu Bidea, Ixabel* (20an 19:00etan, 21ean 21:00etan eta 23an 21:00etan). Halaber, hilaren 21ean, *Kutsidazu Bidea, Ixabel* filmaren proiektzioa amaitu ostean, Eneko Olasagasti ekoizlearekin eta pelikulako aktore batzuekin hitz egiteko parada izango du publikoak; eta 22an, Ramon Agirre *Aupa Etxebeste* filmeko aktorea hurbilduko da Le Vauban aretora. Bestalde, 23an, Korrika Kulturalarekin bat eginez, *Kutsidazu Bidea, Ixabel* filma eman ondoren Korrika 15eko jantziak erakutsiko dituzte moda desfile berezi batean.

## Pio Barojari buruzko ekimenak

**NUPEK** *Pio Baroja: sormena, ezagutza eta bizitza* liburua kaleratu du. Bertan, hogeita bost idazlek idatzitako beste hainbeste artikulua bildu dituzte. Pablo Antoñanak, Edu Zelaietak, Patziku Perurenak, Mikel Tabernak eta Alberto Ladronen idatzi dituzte, besteak beste, artikulua. Bestalde, idazlearen argazkiak, eskuizkribuak, erretratuak, pinturak eta liburuak daude ikusgai Nafarroako Museoan zabaldu duten Pio Barojaren memoria erakusketan. Maiatzaren 27a arte izango da zabalik. Azkenik, Barojaren heriotzaren urteurrenaren inguruko ekitaldien barruan, Ikerketa Barojazaleen Biltzarra antolatu du Nafarroako Gobernuak. Iruñean apirilaren 20tik 22ra egingo da biltzarra.

Idazle Gaztea lehiaketako literatur lanak Internetez bozka daitezke. Galtzagorri Elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Idazle Gaztea literatur lehiaketara aurkeztutako 170 lanetatik 33 (20 narrazio eta 13 poema) aukeratu ditu Galtzagorri Elkarteko hautaketa batzordeak. Gipuzkoako DBHko hainbat ikastetxetako gazteek idatzitako lan horiek [www.idazlegaztea.org](http://www.idazlegaztea.org) web gunean jarri dituzte irakurgai, nahi duen orok gustukoenak aukeratu ditzan. Internautek maiatzaren 15a bitartean eman dezakete euren botoa eta irabazleen izenak ekainean ezagutaraziko dituzte.



## kulturagenda

Martxoaren 16tik 31era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketak

### Dokumentuak

Etorkizunaren memoria  
martxoak 17 arte

The Atlas group/Walid Raad, Bleday Rosa, Luc Delahaye, Juan Manuel Echavarría, Jacques Fournel, Sebastián Friedman, Brian Mckee, Ann-Sofi Sidén, Alec Soth

### Suite Erotique

J.A. Sistiaga  
martxoak 24 arte

Erakusketen bisitaldi  
gidatuak taldeentzat

Tfno: 667 346 025

Jardunaldiak

### Iparraldea bertan


Areto Nagusia. 19:30

Martxoak 22

**Daniel Landarten** hitzaldia: antzerkia, iparraldeko egoeraren argizale

Martxoak 29

**Anje Duhalderen** kantaldia: Errobi iturritik...



Kristobaldegi, 14 | 20014 donostia | [www.arteleku.net](http://www.arteleku.net)

### Avid ikastaroak

Hastapena

Digitalizazioa eta edizioa AVID sistemaren bitartez

Apirilak 16-20 eta maiatzak 21-25

Koordinazioa: **Gabriel Corbella**

Prezioa: 30€

Taldeak: 6 lagun gehienez.

Orduetgia:

goizez 10:00-14:00

Izena ematea: ikastaroa hasi baino 20 egun lehenago

